- ✓ **Convenio con la asociación Bizidun:** Ya preguntamos en su día cuál era la necesidad. Habría que trabajarlo con la asociación, pero Bizidun no nos ha trasladado esa necesidad; es más, todo lo contrario. Han hecho todos los años todas sus actividades, no han dejado de hacer nada por dinero, se han presentado a subvenciones algunos años y otros no y han seguido haciendo todas sus actividades. Con lo cual, tampoco vemos ninguna necesidad de hacer el convenio, pero tampoco nos posicionamos en contra. Habría que trabajarlo pero a simple vista, cuando hemos hablado con ellos y ellas no nos han trasladado esa necesidad.
- ✓ **Las campañas de medidas de ahorro energético:** Hay que hacer un plan porque es obligatorio por ley, y este plan nos dirá cuáles son las necesidades que tenemos, y con esas necesidades podrán estar alguna de las medidas que plantean. Pero quitar dinero al plan, que es obligatorio por ley, y que nos va a decir cuáles son las carencias y cuales las necesidades para hacer unas acciones, no lo vemos.
- ✓ **Ayudas a la pobreza energética:** Está unido al punto anterior; es decir, este plan nos indicará la realidad socio-económica, y se podrán establecer las medidas, los rangos de pobreza energética que tenemos en Durango y en consecuencia se podrá actuar mejor. Así



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

hobeto jardun ahal izango da. Era berean, adierazi behar da pobrezia energetikoaren alorrean badirela beste hainbat laguntza ere (AES, JAED eta Caritas). Erakunde horiek laguntzak ematen dituzte, eta Durangoko Udalak diruz laguntzen ditu aipatutako bi elkarteak, sinatuta dauzkaten hitzarmenen bidez.

Horiek Euskal Sozialistak-en zuzenketei dagokionez. Nioen bezala, hainbat plan egingo dira, gidalerroak emango dizkiguten planak, eta planteatzen dituzuen zuzenketa asko gure aurrekontuetan jasota daude.

Eusko Alderdi Jeltzalearen zuzenketak:

- ✓ **Bidegorria:** Mugikortasun-plana egingo dugu, Aldundiaren bidegorri-plana kontuan hartuko dugu, dirulaguntzak eskatuko ditugu, eta, ahal den neurrian, horiek garatzen saiatuko gara.
- ✓ **Landako parkea, skate parkea:** Badakizue 100.000 euroko partida bat dagoela zabuak hobetzeko. Lehenetasunak zehaztu beharko dira, eta okerren daudenetan jardun. Skate parkeari dagokionez, dagoeneko eman dut erantzuna; ari gara lanean, eta kontuan hartu dira gazteen ahotsa eta iritzia. Badago aurrekontu bat skate parkerako, eta gauzatuko da. Skate parkea bakarrik 174.000 euro dira; beraz, zuen zuzenketarekin ez litzateke iritsiko skate parkea bera bakarrik egiteko ere, eta zuek haurrentzako parke berria eta skate parkea egiteko asmoa duzue.
- ✓ **Mikrobusa:** Guk Taxi Laguna planteatzen dugu; bi planteamendu desberdin dira, eta bi helburu desberdin betetzen dituzte. Bateragarriak izan daitezke, baina Taxi Lagunaren partidarekin gauzatu nahi duzue, eta, hortaz, guk ez dugu ikusten.

Baina, gai horri dagokionez, 2007an azterlan bat egin zen bi autobusekin, ordu erdiko maiztasunarekin, eta urtean 400.000 euroko kostua zuen. Aipatzekoa da, halaber, inguruko beste udalerrri batzuek izan zutela eta gaur ez dutela halakorik, hala nola Zornotzak. Dirulaguntzek iraun bitartean eduki zuten, eta horixe da gertatu ohi dena. Guk uste dugu onena izango litzatekeela Aldundiarekin eta


mismo, indikar que para el tema de pobreza energética existen las ayudas de las AES, la JAED y Cáritas que también dan ayudas y las dos asociaciones mencionadas están subvencionadas mediante convenios firmados por el Ayuntamiento de Durango.

Esto ha sido en referencia a las enmiendas de los Socialistas Vascos. Como decía hay planes que se van a hacer, planes que nos van a dar directrices y muchas de las enmiendas que plantean están recogidas en nuestros presupuestos.

Las enmiendas del Partido Nacionalista Vasco:

- ✓ **Bidegorri:** Vamos a elaborar el plan de movilidad, vamos a tener en cuenta el plan de la Diputación de bidegorris, pediremos subvenciones, y, en la medida de lo posible, trataremos de desarrollarlos.
- ✓ **Parque de Landako, skatepark:** Ya saben que hay una partida de 100.000 euros para mejora de columpios. Habrá que priorizar y actuar en aquellos que peor estén. Respecto al skatepark ya le he contestado, se viene trabajando, se ha tenido en cuenta la voz y la opinión de los y las jóvenes. El skatepark tiene un presupuesto y se materializará. Sólo el skatepark son 174.000 euros, con lo cual con su enmienda no llegaría ni para el skatepark y pretende hacer el nuevo parque infantil y el skatepark.
- ✓ El **microbús:** Nosotros planteamos el taxi-lagun; son dos planteamientos diferentes y cubren dos objetivos diferentes. Pueden ser compatibles pero pretenden llevarlo adelante con la partida del taxi-lagun, con lo cual no lo vemos.

Pero respecto a este tema, en 2007 se realizó un estudio con dos buses, una frecuencia de media hora y nos costaba 400.000 euros al año. Indicar también que otros municipios cercanos como Zornotza lo tuvo y ya no lo tiene, lo tuvo mientras duraron las subvenciones, que es lo que suele pasar. Nosotros creemos que lo mejor sería negociar con la Diputación y la Mancomunidad, un autobús



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Mankomunitatearekin herriarteko autobus bat negoziatzea, hainbat geltoki eta ibilbide egingo dituen, industrialdeak lotuz.

Azpiarratu behar da, era berean, joan den legegintzan hainbat mozio planteatu genituela, eta Osoko Bilkura honetan onartu ere onartu zirela. Eta Aldundiak, idatzi baten bidez, esan zigun guztiak ukatzen zizkigula. Horietako bat zen Ondarroatik irten eta Faustebiden barrena igarotzen den autobusak geldialdi bat egitea han, eta gero Landakora joatea, Olleriatik barrena. Ospitalera doan autobusa da hori. Dakizuen bezala, San Fausto adineko pertsona dezente dituen auzoa da; auzoko pertsonen eskaera bat zen, eta EAJren eta PSEren Aldundiak ezezkoa eman digu.

Baziren zerbitzu eman zezaketen beste proposamen batzuk ere, ez mikrobusak, baina bai gaur egun funtzionatzen duten eta pertsonen egunerokotasuna hobetu zezaketen lineak.


- ✓ **Bide-segurtasuneko programa:** Stop-Accidentes elkartearekin dugun kontratuan sartuta daude adinekoentzako prestakuntza, haurdunentzako prestakuntza, eskola-umeentzako prestakuntza... Hainbat prestakuntza aurreikusten ditu. Era berean, mugikortasunaren astean ere prestakuntza hitzaldiak egiten dira, eta kontzientziario kanpainak ere bai. Hori guztia lehendik ere bazegoen, ez da gauza berria Gobernu honek planteatzea: lehen ere egiten zen.
- ✓ **Bidegorriak seinaleztatzea:** Bide publikoak mantentzearen barruan, balioets daiteke. Egia da bidegorriek mantentze-lanak behar dituztela; egia da, halaber, 2013tik ez dela halako lanik egin, eta hori egiteko asmoa dugula. Eta bide publikoen alorrean diren kontu-sailetatik saiaturako gara hobetzen, aurrekontuek ematen duten aukeren barruan.
- ✓ **TAO:** Agian, Batzordea egin zen unean ez nintzen aziti ibili, benetan sentitzen dut, baina EAJko Bozeramaileari eta edozein herritarri aurkeztu ahal dizkiet teknikariari helarazitako emailak, planteatuz zein zen gure mugikortasun-plana eta zer lau eremu planteatu genituen. Eta hori aurreikusita zeuden Muruetatorre eta Landako zabaltzea. Horrek ez du esan nahi horrela egiten dugunik, edo hemen esa-

interpueblos, que haga diferentes recorridos con diferentes paradas, que una los polígonos industriales.

Hay que destacar, también, que en la legislatura pasada planteamos diversas mociones que se aprobaron en este pleno y que la Diputación, mediante un escrito nos dijo que nos las denegaba todas. Una de ellas era que el autobús que viene de Ondarroa que pasa por Faustebide hiciese una parada allí y luego siguiese a Landako por Ollería. Ese es el autobús que va al hospital; y como sabéis, San Fausto es un barrio con bastantes personas mayores, y era una demanda de las personas del barrio y la Diputación del PNV y PSE nos ha dicho que no.

También había otras propuestas que podían dar un servicio, no de microbús, pero sí en líneas que actualmente funcionan y que podrían mejorar el día a día de las personas.

- ✓ **Programa de seguridad vial:** En el contrato que se tiene con Stop-Accidentes ya entra la formación a personas mayores, entra formación a personas embarazadas, formación a escolares, están contempladas diferentes formaciones. Así mismo, en la semana de la movilidad también se hacen charlas formativas y se hacen campañas de concienciación. Todo esto ya estaba, no es algo nuevo que este Gobierno plantee, ya se venía haciendo.
- ✓ **La señalización de bidegorris:** Dentro del mantenimiento de vías públicas se puede valorar. Es cierto que los bidegorris necesitan mantenimiento; es cierto, también, que desde 2013 no se ha hecho mantenimiento, y que pretendemos hacerlo y que desde las partidas que hay en vías públicas se tratará de mejorar en la medida que presupuestariamente sea posible.
- ✓ **OTA:** Quizás en el momento de la Comisión no estuve lúcido, lo siento mucho, pero tanto a la Portavoz del PNV como a cualquier ciudadano le puedo presentar los emails que en su día le mandamos al técnico en el que le planteábamos nuestro plan de movilidad y las cuatro zonas que habíamos planteado y la ampliación a Muruetatorre y Landako estaban previstas. Lo cual no quiere decir que lo



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ten zen bezala, modu aldebakarrean egin direnik.

Ez dugu geure erabakiz bakarrik egingo, partaidetza-ibilbide batetik baikatoz, auzoz auzo, eta hara joango gara berba egitera ea TAO Muruetatorren eta Landakon zabalduko dugun; TAO urdina egingo dugun edo egoiliarrentzat bihurtzen dugun. Adierazi behar aurrekontuetan planteatuta dagoela hori, eta, horretaz gainera, jasota daudela TAOren makina berriak ere; izan ere, zaharkituak baino zaharkituagoak baitira, eta erabat iraungita baitago TAOren kontratua.

Orain beste lizitazio bat ateratzea dagokigu, eta aurreikusita dago diru-sarrerak gutxitzea, behar den makineria berri guztia jartzeko; gainera, Udalak bere gain hartuko du kontratua, orain arte adjudikatzailerak ari baita kontratua kudeatzen, eta Udal honek kontrol gutxi du.

- ✓ **Adinekoentzako baliabideak:** Programa urtero banatzen dugu etxebizitza guztietara, kanpaina espezifikoak egiten dira diptikoekin, eta, gainerako zerbitzuetan –Andragunea, Durango Kirolak, Astarloa Kulturgintza–, kanpainak egiten dira eta informazioa iristen da, idatziz zein sare sozialetan. Horrek ez du galarazten komunikazioan lanean eta hobetzen jarraitzea, eta halaxe egingo da, gainera.
- ✓ **Belaunaldien arteko laguntza-programa:** Badago programa bat, Zaindu izenekoak. Programa hori hezkuntza-ingurunean lantzen da, eta belaunaldien arteko harremanak sustatzen ditu.
- ✓ **Merkatu Plaza:** 2021ean amaituko da emakida. Iaz azterlan bat hasi zen eta sartuta dago aurrekontuetan. Hala, memorietan azaltzen da 2019an egingo dela azterlanaren hurrengo fasea, eta modu parte-hartzailean jarraituko dela lanean. Eta guztion artean diseinatuko dela zer egin nahi den Merkatu Plazan.

Beste zuzenketa batean, planteatzen da merkatua azoka tematiko batekin sustatzea. Eta publizitate gehiago. Izan ere, dakizuen bezala, Baserritarren Mahaian diru laguntza bat eskatu da eta Durangoko Udalak jada jarri du


hagamos así, o como se decía aquí, elaborados unilateralmente.

No lo vamos a hacer unilateralmente porque venimos de una trayectoria de participación, barrio a barrio e iremos allí a hablar de si ampliamos la OTA en Muruetatorre y en Landako, si la hacemos azul o la hacemos de residentes. Indicar que en los presupuestos, además de estar planteado esto, también está contemplado las nuevas máquinas de la OTA, ya que están más que obsoletas y el contrato de la OTA está más que caducado.

Nos toca ahora sacar una nueva licitación, y está previsto una minoración de los ingresos para poner toda la maquinaria nueva precisa, además de asumir desde el Ayuntamiento el contrato, porque hasta ahora el contrato lo está gestionando la adjudicadora y este Ayuntamiento tiene poco control.

- ✓ **Recursos para personas mayores:** El programa se buzonea a todas las viviendas anualmente, se hacen campañas específicas con dípticos y en el resto de servicios, Andragunea, Durango Kirolak, Astarloa Kulturgintza se hacen campañas y llega la información tanto escrita como en redes sociales. Esto no quita para que se siga trabajando y mejorando en la comunicación y así se hará.
- ✓ **Programa de acompañamiento intergeneracional:** Ya existe un programa que se llama Zaindu que se trabaja en el medio educativo y se trabaja el fomento de las relaciones intergeneracionales.
- ✓ **Plaza del mercado:** En 2021 finaliza la concesión. El año pasado se inició un estudio y en los presupuestos está metido, y así se explica en las memorias que en 2019 se va a hacer la siguiente fase del estudio, y de manera participativa se seguirá trabajando, y se hará entre todos y todas un diseño de lo que se quiere hacer en la Plaza del Mercado.

En otra enmienda, plantea la promoción del mercado con una feria temática. Y más publicidad; pues como ya saben, en la Mesa de Baserritarras se ha solicitado una subvención y el Ayuntamiento de Durango ya ha puesto



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

publizitaterako dirua, mantelak erosi ahal izateko, kartelak egiteko, pantaila digital bat jarri ahal izateko; gure ustez, planteatzen duzuen guztia jasota dago aurkezten ditugun aurrekontuetan.

- ✓ **Erakusleihoen lehiaketa:** PERCO plana berritu dugu, eta handik berritzeak aterako dira. 20.000 euro ditugu dirulaguntzetarako, eta dagoeneko egon gara Dendak Bai elkartearekin. Planteatuta dago haren partida handitzea, eta berba egin da saltokientzako mintegi-programa bat egiteko aukerari buruz hutsik dauden lekuetan eta ekintzaile berriei zuzendurik. Halaber, Gabonetako dekorazioa hobetze eta beste hainbat ekimenen ere aipatu dira.

Baina ez gaude ados EAJrekin finantzatu nahi dituen partiden gainean, edo kendu nahi dituen gainean. Planteatu dute 30.000 euro kentzea berdintasunetik, jaietarako zenbatekoa murriztea –jakinik herritarrek kopuru hori handitzea planteatzen dutela–, kultura-jarduerak murriztea planteatzen dute, eraikin publikoetarako inbertsioak murriztea planteatzen dute, Ezkurdiko aretoetan garapen jasagarriko aurrekontuaren zati handi bat kentzea planteatzen dute.

- * **Ruiz Perez andreak (ES-SV):** Eskerrik asko, Iker. Gaur dagoeneko gehiago hitz egin dugu aurrekontuez, zuzenketak entregatu genituenetik gaur arte baino.

Gobernu Taldeak aukera aprobetxatu du justifikatzeko gure proposamen guztien aurka bozkatuko duela. Eta, hori ikusirik, nik bigarren interbentzio hau baliatuko dut azaltzeko zergatik PSEk emango dien kontrako botoa aurrekontu hauei.

- Gainera, gaur Osoko Bilkura honetan dagoeneko denbora gehiago eskaini diegu, zuzenketak aurkeztu ziren garaitik hona baino. Izan ere, EZTABAIDA BAKARRA ALDEBIKOA IZAN DA, ETA ATEAK ITXITA. Eztabaida, nolabait deitzearren; izan ere, aitzakiak emateko bakarrik balio izan du, aurkeztu genituen zuzenketa guztiei ezezkoa emateko.

el dinero para publicidad, para que se puedan comprar mantelerías, cartelería, poner una pantalla digital; entendemos que todo lo que plantean está contemplado en los presupuestos que presentamos.


- ✓ **Concurso de escaparates:** Tenemos la renovación del plan PERCO de la que saldrán renovaciones. Tenemos 20.000 euros para subvenciones y ya hemos estado con Dendak Bai y está planteado el aumento de su partida, y se ha hablado la posibilidad de hacer un programa de viveros para comercios en los sitios que están vacíos, para nuevos emprendedores, mejora de la decoración navideña y más.

Lo que no estamos de acuerdo con el PNV es con las partidas que pretende financiar o las que pretenden suprimir. Plantean eliminar 30.000 euros en igualdad, reducir la cuantía en festejos cuando la ciudadanía plantea ampliarla, plantea reducir en actividades culturales, plantea reducir en inversiones para edificios públicos, en las salas de Ezkurdi, plantea eliminar gran parte del presupuesto para el desarrollo sostenible.

- * **Concejala Sra. Ruiz Perez (ES-SV):** Gracias a Iker porque hoy ya se ha hablado más de los presupuestos, que desde que entregamos las enmiendas hasta hoy.

Como el Equipo de Gobierno ha aprovechado para justificar por qué va a votar en contra de todas y cada una de nuestras propuestas, yo voy a aprovechar esta segunda intervención para dar las explicaciones de por qué el voto del PSE va a votar en contra de estos presupuestos.

- Además, hoy en este pleno ya le hemos dedicado más tiempo que el empleado desde que se presentaron las enmiendas hasta hoy. Ya que EL UNICO DEBATE QUE SE HA DADO ha sido BILATERAL Y A PUERTA CERRADA. DEBATE por llamarlo de alguna manera, porque únicamente fue para excusarse de por qué iban a votar que no a todas las enmiendas que habíamos presentado.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- Bestalde, esan duzue ingurumenaren eta mugikortasunaren aldeko apustua egiten duzuela, baina Euskal Autonomia Erkidegoko ja-sangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legeak behartzen ditu proposamen guztiak (ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak, erai-kinen energia-auditoriak, energia- eta mugi-kortasun-plana...).
- Beste arrazoietakoa bat honako hau da: bai gizarte-arloan (adinekoak, gizarteratzea, gi-zarte-ekintza, immigrazioa, lankidetzaren eta berdintasuna), bai prestakuntza- eta enplegu-arloan, gastu arruntak eta diru-laguntzak kon-tuan hartzen baditugu (hau da, langileei da-gokiena alde batera utzita), beherakada han-dia da: % 6 gizarte-ekintzaren arloan eta % 20 enpleguaren arloan. Gainera, lankidetzaren eta garapenaren kasu zehatzetan, aurrekontuaren % 0,48ekin ba-karrik geratzen gara.
- Azkenia, baina ez horregatik garrantzi txikiagokoa. Inbertsio eta proiektu pila bat aurkezten dizkigute: Antso Estegiz, Pinondo birgaitzea, Ezkurdi Aretoa, Landako, Zabala-rra, EPA eta Durango Irratia, Aramotz berrur-banizatzea eta hirigintza-kudeaketarako in-bertsioa ORUBE BAT SALDUTA JASOKO LIRATEKEEN DIRU-SARREREN ARABERA BAKARRIK GAUZATU AHAL IZANGO DIRA.

Gainera, azpimarratu nahi dugu alderdi horiek berek eta pertsona horiek berek defendatzen zutela salmenta mota horretan beti aplikatu be-har dela 2/2006 Legea, zeinak adierazten baitu salmenta horretatik lortutako dirua batez ere etxebizitza eraikitzeke erabili behar dela.

Azkenik, esan nahiko nuke faltan sumatu dugula Alkatearen proposamen elektoralista handi bat, maiatzetan durangar guztiei helarazitakoa: 1080ko € pentsioa bermatuko ziela durangar guztiei.


EAJren zuzenketei dagokienez, mugikortasuna hobetzea dakarten zuzenketen alde bozkatuko dugu (bidegorriak, bide-segurtasuna), baita skate parkearen zuzenketaren alde ere, gazteen es-kaera bat baita.

- Por otro lado, habéis afirmado vuestra apuesta por el medio ambiente y la movili-dad, pero todas las propuestas están obliga-das por la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética del País Vasco (puntos de recarga de vehículos eléctricos, auditorías energéti-cas de edificios, plan de energía y movili-dad...).
- Otro de los motivos es porque tanto en el área social donde se engloba, personas ma-yores, inclusión social, acción social, inmi-gración, cooperación e igualdad como en el are de formación y empleo si tenemos en cuenta gastos corrientes y subvenciones (es decir excluimos lo relativo al personal) el descenso es considerable, siendo un 6% en el área de acción social y 20% en el área de empleo. Además, en el caso concreto de co-operación y desarrollo nos quedamos única-mente con el 0,48% del presupuesto.
- Lo último, pero no por eso menos impor-tante. Nos presentan un montón de inversio-nes y proyectos: Antso Estegiz, rehabilita-ción de Pinondo, Ezkurdi aretoa, Landako, Zabalarra, EPA y Durango Irratia, reurbaniza-ción de Aramotz y la inversión para gestión urbanística SOLO SE PODRAN IR MATERIALIZANDO DE ACUERDO CON LOS INGRESOS QUE SE VAYAN PERCIBIENDO DE LA VENTA DE UN SOLAR.

Que además queremos incidir que estos mismos partidos e incluso estas mismas personas de-fendían siempre que se debía aplicar en este tipo de ventas la ley 2/2006 que indica que el dinero obtenido de esta venta se utilice preferente-mente a la construcción de vivienda.

Por último, solo decir, que hemos echado de menos esa gran propuesta electoralista de la Alcaldesa que en mayo decía que iba a garantizar la pensión de 1080 € a todas las duranguesas y durangueses.

Respecto a las enmiendas del PNV, votaremos a favor de las enmiendas que suponen una mejora para la movilidad (bidegorris, seguridad vial), así como a la enmienda del Skatepark ya que es una demanda de los jóvenes.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Merkatu Plazarekin lotutako zuzenketen aurka bozkatuko dugu, uste baitugu konponbidea ez dela tiritak ipintzea. Eta gainerako zuzenketei dagokienez, azkenik, abstenitu egingo gara.

Amaitzeko, zorionak eman nahi dizkizuet gaur onartuko dituzuen aurrekontuengatik, eta espero dugu datozen urteetan kontuan hartuko dituzuela gaur oposizioan gauden Alderdioi botoa eman diguten durangarren borondatea ere.

*** Elkoroiribe Zenikaonandia andreak (EAJ-PNV):**

Nik lehendabiziko agerraldian baliatutako hainbat termino argitu nahiko nituzke. Esan dugu aurrekontu-luzapen batetik gatozela, eta egia da. Baina, agian, gogoratu behar da zein egoeratan gertatu zen luzapen hori, Antolaketa-Batzorde bat baitzegoen –garai hartan aurrekontu-batzorde deitzen zitzaien–, aurreko Gobernu-Taldearen aurrekontu-proiektua aurkezteko. Eta, hala ere, kasualitatez Kontu-hartzaileak istripu txiki bat izan zuen, baja hartu zuen, eta Aurrekontu-Batzordea bertan behera utzi behar izan zen. Eta, ondoren, Kontu-hartzaile berria sartu zen. Horrek guztiak eragin zuen aurrekontuekin lotutako guztia pixka bat atzeratzea. Urte hartan, gainera, hauteskundeak izan ziren, eta, horrekin, ez zen logikoa aurrekontuak otsailean izapidetzen hastea. Esan nahi dudana da zirkunstantzia berezi batzuk gertatu zirela onartu ahal izateko.

Komentatu duzue, halaber, parte-hartzea sustatu duzuela, pertsonen entzun diezuela; eta nire zailantza da ea benetan parte-hartze hori partaidetza-prozesu bat ote zen, entzute-urte horien guztien ondorio. Eta esaten dut deigarria delako 16 proposamenetatik batzuk atera ere ez direla egin; hau da, partaidetza-aurrekontu horietara bideratu ziren 600.000 euroak, batzuk bozkatu ere ez dira egin.

Bestalde, deigarriak egiten zaizkit aipatzen ari zireten programa batzuk. Behin eta berriz diozue berritzaileak direla eta, egia esan, aurreko lege-gintzalditik datoz: argiteriaren hobekuntzak, Antso Estegiz proiektua, Aramotz Berritu (2019ko Osoko Bilkuran onartu zen). Zuek garai hartan Aramotzeko gizarte-etxeaz bakarrik hitz egiten zenuten, eta orain desagertu egin da, ez baitugu hari buruzko ezertxo ere entzun. Energiaren jarduketara plana Tokiko Agenda 21eko

Votaremos en contra de las que están relacionadas con la plaza del mercado, porque creemos que la solución no pasa por ponerle tiritas, y en el resto de enmiendas nos abstendremos.


Quiero acabar dando la enhorabuena por los presupuestos que hoy vais a aprobar, y esperamos que en los próximos sean tenidos en cuenta también todas las duranguesas y durangueses que confiaron sus votos en los que hoy somos Partidos de la oposición.

*** Concejala Sra. Elkoroiribe Zenikaonandia (EAJ-PNV):**

Yo quisiera aclarar algunos términos que se han utilizado en la primera intervención. Hemos hablado que venimos de una prórroga presupuestaria y, es verdad, pero igual hay que recordar en qué situación se dio esta prórroga ya que había una Comisión de Organización aunque en aquel momento se llamaba Comisión de Presupuestos, para presentar el proyecto de presupuestos del Equipo anterior. Y, sin embargo, dio la casualidad que hubo un pequeño accidente de la Interventora, cogió la baja y la Comisión de Presupuestos se tuvo que suspender; y después, se incorporó el nuevo Interventor pero todo esto lo que hizo fue retrasar un poco todo lo relacionado con presupuestos, y coincidía que era un año de elecciones, con lo cual, empezar a tramitar los presupuestos en febrero no era lógico. Lo que quiero decir es que se dieron unas circunstancias especiales para que se pudieran aprobar.

Habéis comentado, también, que habéis fomentado la participación, habéis escuchado a las personas; y mi duda es si realmente esta participación era proceso de toda esa participación, de todos esos años de escucha. Lo digo porque llama la atención que de las 16 propuestas algunas ni siquiera han salido, es decir, los 600.000 euros que se destinaron a esos presupuestos participativos, algunos ni siquiera han sido votados.

Por otra parte, me llaman la atención algunos programas que estáis mencionando, una y otra vez como novedosos y, en realidad, vienen de la legislatura anterior: las mejoras de alumbrado, el proyecto de Antso Estegiz, Aramotz Berritu (fue aprobada en un pleno de 2019) cuando lo único que vosotros discutíais y que al parecer por el momento ha desaparecido porque no hemos oído hablar de él, es el centro cívico de Aramotz. El plan de actuación energética estaba recogida en el plan de acción de Agenda Local 21 habiendo,



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

ekintza-planean zegoen jasota, eta, are gehiago, Madrilén sari bat jaso zen energia berrien proiektuagatik... Hau da, aurreko legegintzalditik datoz jarduketa horietako asko.

Inbertsioei dagokienez, aurreko zenbatekoarekin alderatu duzue 2.300.000 euroko zenbatekoa. Ez ditugu konparatuko, inola ere, urte oparoak eta atzeraldi ekonomikoko urteak; argi geratu da Udalkutxaren bidez 2 milioi euro gehiago inbertsiora bideratu daitezkeela.

Baina atzeraldi ekonomikoko urte zailetan egon arren, gauza asko egin dira; esate baterako, San Faustoko urbanizazioa, Kapitanea baserria erosi dugu, Landako haur-jolasen estalkia, Musika Eskolako parkea, Santa Maria elizpearen zaharberritze proiektua, Urki-Hegoaldeko hirugarren fasea, bidegorrian hobekuntzak, Azterlanekin egindako trukea Euskaltegia Udalarena izan dadin, hobekuntzak karkabetan, museo berritzea, Ezkurdiko iturria eta Pinondo berritzea, Santako birgaitzea eta abar.

Ezin da esan ez dela egin inbertsiorik, egin direnak geldikinak baliatuz egin dira eta zuhertasun-irizpidea erabiliz, beti pertsonak lehenetsiz eta pertsona horiei zuzendutako zerbitzu guztiak ziurtatuz. Eta gero egin dira eraikinak.

Guri gustatuko litzaiguke inbertsio-plan bat izatea; ez aurrekontuan datorrenari buruz bakarrik, baizik eta gerakinari buruzkoa ere bai. Izan ere, kezkatu egiten gaitu jakiteak gerakin horiek nola erabiliko diren. Azkeneko urteetan, behar denean eta beharrezkoak diren proiektuetarako benetan erabili behar diren soberakinak metatu dira, eta orain apur bat neurritz kanpoko iruditzen zaigu 500.000 euro bideratzea parke berri bat eraberritzeko. Izan ere, zabu berriak bakarrik behar zituen, eta, horregatik, neurritz kanpoko iruditzen zaigu diru hori horretan gastatzea. Gainera, inbertsioak hirigintza-jarduketan mende daude, eta ikusiko dugu gauzatzen diren.

Guk jarraipena egingo diogu. Horri dagokionez, egia da eraikin batzuek birmoldaketa-lanak behar dituztela. Baina deigarria iruditzen zaigu beste kontu bat. Orain bertan izan da laguntza-dei-

incluso, recogido un premio en Madrid por el proyecto de nuevas energías... Es decir, que muchas de estas actuaciones vienen de la legislatura anterior.


En cuanto a inversiones, habéis comparado la cuantía de 2.300.000 con la cuantía anterior. No vamos a comparar los años de recesión económica que se han vivido con los años de bonanza; ha quedado claro, más de 2 millones de euros más a través de Udalkutxa que se pueden destinar a inversiones.

Pero a pesar de estar en unos años de recesión económica complicados, se han hecho un montón de cosas como la urbanización de San Fausto, la compra del caserío Kapitanea, la cubierta de juegos infantiles de Landako, el parque de Musika Eskola, el proyecto de rehabilitación del pórtico de Santa María, la tercera fase de Urki-Hegoalde, mejoras en el bidegorri, la permuta con Azterlan para que el Euskaltegi sea del Ayuntamiento, mejoras en las cárcavas, reforma del museo, rehabilitación de la fuente de Ezkurdi y Pinondo, rehabilitación de Santa Ana...

No se puede decir que no se hayan realizado inversiones, lo que se han realizado es de los remanentes y utilizando un criterio de prudencia, anteponiendo siempre a las personas y asegurando todos los servicios dirigidos a estas personas, y después los edificios.

A nosotros nos gustaría tener un plan de inversiones; no solo de lo que viene en el presupuesto, sino también del remanente. Porque nos preocupa cómo se vayan a utilizar esos remanentes, porque si a lo largo de los últimos años se han acumulado unos remanentes que hay que utilizar realmente cuando hace falta y para proyectos que sean necesarios, pues ahora nos parece un poco desproporcionado 500.000 euros en reformar un parque nuevo, que lo único que necesitaba era unos columpios nuevos, pero gastar ese dinero nos parece desproporcionado. Además, las inversiones están supeditadas a unas actuaciones urbanísticas que ya veremos si se ejecutan. Nosotros haremos un seguimiento.

En relación con esto, es verdad que hay edificios que necesitan una remodelación, pero lo que llama la atención es que ha habido ahora mismo una convocatoria de ayudas para rehabilitación



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

aldi bat ondare historikotzat jotzen diren eraikinak birgaitzeko, eta eraikin horietako batzuek, garai bateko San Agustín komentua kasu, 300.000 eurorainoko dirulaguntza lor zezakeen. Bada, Durangoko Udalak ez du eskaera aurkeztu ere egin. Alde batetik, beharra ikusten dugu, baina, bestetik, obra horiek egin ahal izateko laguntza ekonomikoak sortzen direnean, edo ahaztu egiten zaigu eskaera izapidetzea, edo ez zaigu behar bezain garrantzitsua iruditzen.

Hemen aipatu diren lehentasunei dagokienez – eta jasota daude, gainera, memoria politikoan –, deigarriak egiten zaizkit batzuk, ez dakit zifra desberdinak ditugulako edo niri ez zaizkidalako kontuak ateratzen. Aipatu da gizarte-politikan gizarteratzeko, adinekoentzako eta immigraziorako partida erabili dela, eta, partida horiek guztiak batuz gero, 1.748.149 eurotik 1.619.308,65 eurora igaro garela; hau da, 128.836 euro gutxiago. Beraz, ulertzen dut zifra horiek gaizki eman dizkigutela edo hizkuntza desberdinetan ari garela berbetan.

Baina badira beste lehentasun batzuk ere, hala nola haurtzarora eta gaztarora. Baina, benetan, markatzen ari den gauza bakarra Durango osorako 100.000 euroko partida da; hau da, 500.000 euro Aramotz parkerako eta 100.000 euro Durango osorako.

Hezkuntzari dagokionez, ikastetxeen arteko jarduera bateratuak eta egiturazko hobekuntzak sustatzeaz hitz egiten duzue, baina ahaztu egiten duzue garrantzitsuena: ikastetxe horiekiko harremana funtsezkoa dela eta badakigula ikastetxe batzuek hilabeteak daramatzatela beren eskaeretako batzuei erantzuteko zain.

Kiroletan ez dugu ezer berririk ikusi. Ez da bildu ezertxo ere orain arte egiten dena baino harago, eta aldatu dena da prezioak igo direla eta ezinegon sortu dela herritarren artean. Ez dut uste herritarren artean kirola sustatzeko modua denik.

Turismoari eta merkataritzari dagokienez, ados gaude tokiko merkataritzarako eta merkaturako partida bat dagoela, baina aurreko urteko azterketarekin jarraitzeko azterlan bati buruz ari gara, literalki. Hori baldin bada Gobernu-Taldeak egingo duen ekarpena, bada ez dugu ulertzen. Gure zuzenketak atzera bota dira, guk neurri ze-

de edificios que se consideran de patrimonio histórico y que algunos de estos edificios como puede ser el antiguo convento de San Agustín, podrían obtener esa subvención de hasta 300.000 euros, el Ayuntamiento de Durango ni siquiera ha hecho esa solicitud. Por una parte vemos la necesidad, pero por otra cuando hay ayudas económicas para poder acometer esas obras, o bien se nos olvida tramitar la solicitud o no nos parece lo suficientemente importante.


En cuanto a las prioridades que se han ido comentando aquí, y que también están recogidas en la memoria política, me llama la atención algunas porque o tenemos cifras diferentes o a mí no me cuadran las cuentas. Se menciona que en políticas sociales se ha empleado la partida para inclusión social, personas mayores e inmigración y si sumamos todas estas partidas pasamos de 1.748.149 euros a 1.619.308,65 euros, es decir, 128.836 euros menos, con lo cual entiendo que estas cifras o no se nos han dado bien o estamos hablando en idiomas diferentes.

Pero también hay otras prioridades que se marcan como infancia y juventud, cuando en realidad lo único que se está marcando es la partida de 100.000 euros para todo Durango, es decir, 500.000 euros para el parque de Aramotz y 100.000 euros para todo Durango.

En cuanto a educación, habláis de promover actividades conjuntas entre centros y mejoras estructurales pero os olvidáis de lo más importante, la relación con esos centros que es fundamental y nos consta que hay centros que llevan meses esperando respuesta a algunas de sus solicitudes.

En deportes no hemos visto nada nuevo. No se ha incluido nada más allá de lo que se viene haciendo hasta ahora, y lo que sí ha cambiado es que han subido los precios y hay malestar entre la ciudadanía. No creo que sea la forma de fomentar el deporte entre la ciudadanía.

En cuanto al turismo y comercio, estamos de acuerdo en que hay una partida para comercio local y para el mercado, pero literalmente estamos hablando de un estudio para continuar con el estudio del año anterior. Si esta es toda la aportación que se va a hacer desde el Equipo de Gobierno, pues no lo entendemos. Se han recha-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

hatzak proposatzen genituen, eta ulertzen dugu azkenean ez dela egiten eta, gainera, ez dela egiten ere uzten.

Zuzenketei dagokienez: Alluitzeko bidegorria. Ez da mugikortasun-planari begiratzea; ez dago bidegorrien metro bakar bat ere, eta uste dut hemen aukera garbia dela: edo apustua egiten da edo ez da apustua egiten. Eta garbi geratu da hemen ez dagoela bidegorrien aldeko apustu garbirik.

Auzo Taxia positiboa dela uste dugu, baina, era berean, uste dugu ez diela erantzuten adinekoen kopuru handi bat bizi den auzo jakin batzuetako mugikortasun-beharrei. Hori horrela izanik, gure barne-arazoak Aldundiaren autobusekin konpontzen saiatzea, jakinik tokiko eskumena dela, bada une jakin batean lagungarri izan liteke, baina ez dugu nahi Aldundiak gure arazoak konpontzea, ezta gure eskumenak bere gain hartzea ere.

Bide-segurtasuneko kanpainari dagokionez, badakigu badela bide-hezkuntzako programa bat, baina 3.000 euro baino ez ditu. Eta guk uste dugu, hainbat garraiobide gero eta gorakada handiagoa izaten ari diren une honetan –hala nola bizikletak edo patinete elektrikoak–, beharrezkoa dela pertsonak heztea eta kontzientziaztea, bizikidetza atsegina eta segurua izan dadin.

Tokiko merkataritzari dagokionez, badakigu gauza batzuk jasota daudela, baina gu zabaltzeaz eta laguntzeaz ari gara berbetan.

TAO Muruetatorrera zabaltzeari dagokionez, uste dut zure alde dela esatea ez zinela oso azti ibili. Baina gauza bat da despistatzea une batean, eta beste bat da ahaztea TAO sistema ipini behar dugun auzo oso batean.

Bidegorrien seinaleztapena hobetzeari dagokionez, ulertzen dugu onartzen duzuela ez zegoela sartuta esaten ari garelako beharrezkoa dela eta lehentasuna ematen saiatuko dela; hori horrela izanik, adibidez, onar zitekeen 5.000 euroko zuzenketa hau, aurrekontuaren % 0,01.

Harritu egin gaitu lehen aldiz entzuteak arazoa dela nondik kentzen genuen; hau da, esan izan bazenigute arazoa hemendik edo handik kentzea dela, agian akordio batera iritsi ahal izango ginatekeen zuzenketaren bat onartzeko, eta gu ego-

zako nuestras enmiendas, nosotros proponíamos medidas concretas y lo que entendemos es que al final ni se hace ni se deja hacer.

En cuanto a las enmiendas: el bidegorri de Alluitz. No es que se esté mirando el plan de movilidad es que no hay ni un solo metro de bidegorri, y creo que aquí, o se apuesta o no se apuesta y lo que está claro es que aquí no hay una apuesta clara para los bidegorris.

El auzo-taxi entendemos que es positivo, pero también creemos que no responde a las necesidades de movilidad de determinados barrios donde reside un amplio número de personas mayores y tratar de solucionar nuestros problemas internos, que es competencia local, con los autobuses de Diputación en un momento dado nos puede servir de ayuda pero no pretendamos que la Diputación nos resuelva nuestros problemas ni asuma nuestras competencias.


En cuanto a la campaña de seguridad vial, sabemos que existe un programa de educación vial pero se reduce en 3.000 euros. Y nosotros creemos, que en este momento en el que ciertos modos de transporte están teniendo más auge, como son las bicicletas o los patinetes eléctricos, es necesario educar y concienciar a las personas para que la convivencia sea amable y segura.

En cuanto al comercio local, sí sabemos que hay cosas recogidas pero nosotros estamos hablando de ampliar y contribuir.

En cuanto ampliar la OTA a Muruetatorre, creo que le honra decir que no estuvo muy lúcido pero una cosa es un despiste y otra es que se le olvide si vamos a implementar la OTA a todo un barrio.

En cuanto a mejorar la señalización de bidegorris, entendemos que nos están aceptando que no estaba incluido porque se está diciendo que hace falta y que se intentará priorizar; con lo cual, por ejemplo esta enmienda de 5.000 euros, el 0,01% del presupuesto se podía haber aprobado.

Nos ha sorprendido escuchar por primera vez que el problema era de dónde quitábamos, es decir, si nos hubierais dicho que el problema es que eliminamos de aquí o de allí igual hubiéramos podido llegar a un acuerdo para aprobar alguna



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

kitu egingo ginatekeen nondik atera dezakegun ikusteko.

Zuzenketak lehenago nola egiten ziren aipatuko dugu: Nik hemen badaukat EH Bilduren 2017ko aurrekontuetarako aurkeztutako zuzenketen zerrenda bat; zuzenketak, besterik gabe, zerrenda bat dira, zerrendatutako 43 kontzeptu. Eta gero esaten digute ez ditugula zuzenketak ondo aurkeztu; skate parkearena ez dugula ondo kalkulatu. Baina, gutxienez, landu ditugu eta saiatu gara proposamen zehatzak egiten.

Hauek dira EH Bilduk aurkezten zituen zuzenketak. Eta nondik kentzen zituzten? Por ejemplo, *"Durangoko udalak Etxezuriosten daukan lursailaren salmentatik ateratzea"* eta bi partida aipatzen dira, zenbakiak bakarrik *"partidetan dagoen zenbatekoa proiektu hauek aurrera eramateko bideratzea"*.

Hori zen zuzenketak aurkezteko modua. Eta osoko zuzenketei dagokienez, zer esanik ez. Nik uste dut lan serioa egin dugula, eta esan izan balitzaigu arazoa zela diru-partidak nondik kentzen genituen edo zenbatekoak nondik murrizten genituen, gure zuzenketak ondo koardratuta aurkeztu ahal izateko, ez genukeen arazorik hori aztertzeke.

Azken batean, ezin dugu aurrekontu hauen alde bozkatu ekimenik gabe, entzun gabe, negoziatorik gabe, akordiorako borondaterik gabe... Horrek guztiak erakusten du Gobernu-Taldeak ez duela ez koherentziarik, ez berbarik.

Alderdi Sozialistaren zuzenketei dagokienez, haietako hainbaten aldeko botoa emango dugu, erabat partekatzen baititugu planteamenduak: Urki-Hegoalde, Izurtzako bidegorria, igerilekuetarako mikrobusa, oinezkoen segurtasunari buruzko auzia, argiztapena, merkataritzaren gaia eta ekintzaileak eta lokalak, izuaren botoia, Bizidun elkartearekin proposatutako hitzarmena.

Kontrako botoa zuzenketa bakar bati emango diogu; hau da, laneratzearen aurka, ulertzen baitugu Behargintzak dagoeneko lan egiten dela eta ulertzen dugulako hori dela lanerako eremua. Eta abstenitu egingo gara bi zuzenketatan: energia-eraginkortasunen sentibilizatzeko eta aurrezpen-

de las enmiendas y nosotros nos hubiéramos adaptado para ver de dónde podemos sacar.

Por comentar cómo se hacían antes las enmiendas: Yo tengo aquí un listado de enmiendas presentadas para los presupuestos de 2017 de EH Bildu, que simplemente las enmiendas consisten en una enumeración, 43 conceptos enumerados. Y luego nos dicen que no hemos presentado las enmiendas bien; que lo del skatepark no lo hemos calculado bien, pero por lo menos, las hemos trabajado y nos hemos esforzado en hacer propuestas concretas.


Estas son las enmiendas que se presentaban por EH Bildu y ¿de dónde quitaban? Por ejemplo, *"Obtención de la venta de la parcela propiedad del Ayuntamiento de Durango en Etxezurioste"* y se habla de dos partidas, que únicamente contienen números *"destinar el importe que contienen estas partidas para llevar a cabo dichos proyectos"*.

Esa era la forma en la que se presentaban las enmiendas, por no hablar de las enmiendas a la totalidad. Y creo que hemos hecho un trabajo serio y si se nos hubiera dicho que el problema era las partidas de donde eliminábamos o reducíamos las cuantías para poder presentar nuestras enmiendas bien cuadradas lo hubiéramos mirado.

En definitiva, no podemos votar a favor de estos presupuestos sin iniciativa, sin escucha, sin negociación, sin voluntad de acuerdo... Todo esto muestra la falta de coherencia y de palabra del Equipo de Gobierno.

En cuanto a las enmiendas del Partido Socialista vamos a votar a favor de varias de ellas porque compartimos plenamente los planteamientos: Urki-Hegoalde, bidegorri de Izurza, el microbús para las piscinas, todo el tema de seguridad de peatones, iluminación, tema del comercio y los emprendedores y locales, el botón del pánico, el convenio con Bizidun.

Vamos a votar en contra de una sola enmienda, que es la de inserción laboral porque entendemos que ya se trabaja desde Behargintza y entendemos que es el ámbito desde el que se tiene que trabajar y nos vamos a abstener en dos enmiendas: la campaña y cursos para medidas de aho-



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

neurrietarako kanpainak eta ikastaroak eta energia-pobreziarako laguntzak. Eta ez partekatzen ez ditugulako, baizik eta ez gaudelako ados planteatzen diren zenbatekoekin.

* Kontuhartzailea **Palacio Perez jaunak**: Kontu pare bat argitu nahiko nituzke. EAJko Bozemaileak 2019ko luzapenari buruz esan duenari dagokionez, labur-labur azalduko dut zer-nola igaro zen denbora-ildoa, eta uste dut horrekin denok ulertuko dugula.

Ni toki-administrazioarako gaikuntza nazionala duen funtzionarioa naiz, eta, oposizioa atera ostean, Durangoko Udala aukeratu nuen behin-behineko destino gisa. Hori 2018ko abuztuaren 31n izan zen. Aurretik, Eusko Jaurlaritzako Erakundeekiko Harremanetarako Sailarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanetarako Departamentuarekin bildu nintzen. Idazkariarekin ere elkartu nintzen, garai hartako Alkate Aitziber Irigorasekin, eta irailaren 19rako ipini genuen hitzordua.

Bi ordu eta erdi inguru egon ginen elkarturik, eta egin genuen gauzetako bat aurrekontua onartzeko egutegi bat izan zen. 2018ko irailaren 29an hasia zegoen aurreikusita. Alkateari zailtasun jakin batzuk sortu zitzaizkion nire izendapenarekin, eta txosten bat eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, ikusteko nire izendapena onartzea nahitaezkoa zen ala ez; gure kasuan, Bizkaiko Aldundiak egiten du izendapena, Udalak ez du esku hartu behar, adostasuna onartu besterik ez du egin behar. Adostasun horrek ez luke diskrezionala izan behar, objektiboa baizik: zergatik ez den onartu nahi oposizio batean lanpostua atera eta hautaketa-prozesua gainditu duen pertsona baten izendapena.

Eusko Jaurlaritzak erantzun du goragoko kategoriako gaitasundun bakar batek ere (ni sartzen naizelako) Durangoko Udalaren izendapena nahi badu, eta egiten den dei baten bidez egiaztatzen bada, izendatu egin behar nautela. Bigarren txosten juridiko bat eskatu zitzaion Bizkaiko Foru Aldundiari, eta, bien bitartean, nik etxean jarraitzen nuen, kobratu gabe eta lanik egin gabe. Une hartan, Portugaleteko Kontuhartzaileak baja bat izan zuen, eta huraxe estali nuen. Denbora hartan, eta hori 2019ko urtarrilaren 24ra arte


erro y sensibilización de la eficiencia energética y las ayudas a la pobreza energética, no porque no las compartamos sino porque quizá no estamos tan de acuerdo con las cuantías planteadas.

* Interventor **Sr. Palacio Perez**: Quiero aclarar un par de cosas. Respecto a lo que comentaba la Portavoz del PNV sobre la prórroga del 2019 haré un breve resumen de cómo fue la línea temporal y creo que con eso lo entenderemos todos y todas.

Yo soy funcionario con habilitación de carácter nacional para administración local y, una vez sacada la oposición, elegí como destino provisional el Ayuntamiento de Durango, eso era el 31 de agosto de 2018. Previamente me había reunido con relaciones institucionales del Gobierno Vasco, así como con relaciones municipales de la Diputación Foral de Bizkaia, incluso me reuní con el Secretario, con la entonces Alcaldesa Aitziber Irigoras y concertamos una cita para el 19 de septiembre.

Estuvimos reunidos alrededor de dos horas y media y una de las cosas que hicimos fue un calendario para aprobar el presupuesto. Mi incorporación estaba prevista para el 29 de septiembre de 2018. A la Alcaldesa le surgieron determinadas dudas con mi nombramiento y solicitó un informe jurídico al Gobierno Vasco para ver si era obligatorio aceptar mi nombramiento o no; en nuestro caso, quien nombra es la Diputación de Bizkaia, el Ayuntamiento no tiene que intervenir en el nombramiento, simplemente mostrar una conformidad. Una conformidad que no debiera tener un carácter discrecional sino un carácter objetivo de por qué no se quiere admitir el nombramiento de una persona que ha sacado plaza y ha superado un proceso selectivo en una oposición.

El Gobierno Vasco responde que si ningún habilitado de categoría superior (porque yo soy de entrada) quiere el nombramiento del Ayuntamiento de Durango, y se constata a través de un llamamiento que se hace, me tienen que nombrar. Se solicita un segundo informe jurídico a la Diputación Foral de Bizkaia y, mientras tanto, yo estoy en mi casa, sin cobrar y sin trabajar. En ese momento la Interventora de Portugalete tuvo una baja y cubrí su ausencia. Durante ese tiempo, y esto se alarga hasta el 24 de enero de 2019, yo llegó a interponer hasta dos recursos



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

luzatu zen, nik bi berraztertzeko errekurtsu aurkeztu nituen Bizkaiko Foru Aldundian, espediente izapidetzeko administrazio-isiltasunaren aurrean. Argi zegoen izendapena tramitatu egin behar zela eta izendatu egin behar nindutela, eta, bi errekurtsoen aurrean, jakina, izendatu egiten nautela eta 2019ko urtarrilaren 24an Udalean sartzen naizela. Aurreikusitakoa baino 5-6 hilabete geroago amaituko da.

Bien bitartean, Durangoko Udalaren aurrekontua aurkeztu behar zuen Ogasun Batzordeko Kontu-hartzaileak istripua izaten zuen batzordera zihoala. Baina egia da aurrekontua egina, informatua eta landua zegoela. Ni etorri nintzenean, aurrekontuari buruz gogoratzen dudana elkarriketa bakarra aurrekontuan egingo zirenean aldaketa batzuei buruzkoa zen. Eta nik zera adierazi nuen: aurrekontua nik informatu beharko banu, gutxienez, Gobernu-Talde berri honi eskatu dizkiodan baldintza guztiak bete beharko nituela, plan estrategikotik, diru-laguntzetatik eta bileretan aipatu ditugun 1. kapituluko aldaketa guztietatik abiatuta.

